

Asisko gutuna

2014ko Otsaila. 4. printzipioa. Bidea elkarrekin egin, anaitasunez bizi

64. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Bilaketa oro itxaropenez josia dago: aurkitzearen itxaropenez, azalpen edo ulertze itxaropenez, zentzu itxaropenez, osotasunezko Bizitza izate itxaropenez. Hara, bilaketak geuretik ateratzera garamatza, haratago begiratzera, neungan aurkitu ezin dudanaren bila abiatzera

Horregatik gertatzen zaigu hain garrantzitsua bila dabilzanekin aurkitzea, berekin daramatelako egonezina eta itxaropena, eta itxaropen hori kutsatzen digute. Eta bizia.

Gogoetarako gaia

Elkarren bila ibili, elkarri laguntzeko.

Behin baino gehiagotan azpimarratu dugu zenbat balio duen harremanak, besteekin aurkitzeak, partekatzeak ... Eta horiek halako gorabehera batzuetan egitea hil edo bizikoa, ezinbestekoa, bihurtzen da. Baina hain zuzen hori egitearen bila ez gabiltzalako, horixe dugu gutxien duguna gogoko. Une batzuetan larritasunak, ezinegonak, errabiak, ezinak nahiz errudun sentitzeak datozkigu gainera, eta horietan geure baitan gordetzera jotzen dugu, hurbileko eta adiskide-giroko harremanetik ihes egitera.

Izan ere, askotan denbora behar izaten dugu, zer pasatzen zaigun jakiteko, berorri hitza jartzeko eta norbaitekin partekatu ahal izateko. Baina horrez gain, dudarik gabe, bada gugan joera, gustatzen ez zaiguna edo hauskor egiten gaituena edo geure zauriak begi-bistan jartzen dituen gordean edukitzeko.

Badakigu horrek, epe luzera, ez digula batere onik egiten. Baina zein erraz erortzen garen behin eta berriz horretan! Horregatik dugu hain axola handikoa, lagundu eta zuloatik atera gaitzaten pertsonak hurbil izatea. Geure egoera

besteei adierazteak, alde batetik, gertatzen zaigunari hitza jartzera behartzen gaitu. Eta bestetik, geure ilunpea argi berritara zabaltzen dugu: zenbat aldiz besteek ikusarazi dizkiguten gauzak, bizi genituen modutik erabat ezberdinki!

Horixe da, hain zuzen, senidetasuna sortzea: konfiantzazko eta harreman sano eta sendatzailazko esparruak eraikitzea. Harreman horietan dugu benetan elkar bilatzen eta partekatzen, barrua husten eta gauzak aurrez aurre argitu ahal izaten. Horietan gara begiratuak geure burua gordetzen ibili beharrik gabe, eta horietan eskatzen zaizkigu kontuak, hain zuzen albora uzten ditugunean. Horietan bizi gaitezke besteengana zabalik, geure baitan makurtuta gelditu ordez.

Geure burua irekitzea eta besteengan konfiantza jartzea gogoz kontrakoa dugu, baina zenbat hartzen dugun horretan! Frantzisko doneak zioen bezala: "Jaunak anaiak eman zizkidan". Eta hori da eman zaigun dohainik handiena.

Bibliako pasarteak: Kol 3,12-14.16

Jantz zaitezte bihozberatasunez, ontasunez, apaltasunez, otzantasunez, pazientziaz. Izan eraman oneko elkarrekin eta barkatu batak besteari, inork inoren aurka zerbait balu. Jaunak barkatu zizuen bezala, barkatu zuek ere elkarri. Eta guztien gainetik, jantz zaitezte maitasunez, hau baita elkartasun betearen lokarria. Bizi bedi oparo zuengan Kristoren mezua. Irakatsi eta zentzarazi elkar jakinduria osoz. Kantatu Jainkoari esker onez eta bihotzez salmoak, gorazarreak eta kantu inspiratuak.

Frantziskotar espiritualtasuna

Anai Leon, zeure anai Frantziskok: osasuna eta bakea. Ama batek bezalaxe hitz egiten dizut, ene seme. Bidean esan ditugunak hitz bakar honetantxe laburbiltzen dizkizut eta kontseilu ematen; eta gero niregana kontseilu eske etorri beharrean bazina, hona nire kontseilua: Jainko Jaunari atsegin izateko eta beraren oinatzei eta pobretasunari jarraitzeko modurik onena iruditzen zaizuna, egizu horixe Jainko Jaunaren bedeinkapenez eta nire baimenaz. Eta zeure arimaren onerako beste kontsolazio baten beharrean bazina eta niregana etorri nahi baduzu, zatoz, Leon (LeG).

Anai Leon, Frantziskoren lagun eta aitor-entzulea, behin baino gehiagotan sentitu zen, nonbait, barne-kezkak joa eta kontsolamendu beharrean. Bazekien jar zezakeela konfiantza Frantziskorengan, eta hari bere beldurrak eta zalantzak adierazi. Zenbat aldiz egin ote zion on horiek komunikatzeak eta bere burua kontsolatzen uzteak, eta zenbat argi jarri ote zuten haren baitan Frantziskoren hitzek! Hurbil zekiokkeen lasai, harengana ama baten txera, eta Jainkoaren aurrean egian dabilenaren jakinduria eta egiazaletasuna, aurkitzeko segurantzan. Anai Leonek Frantziskoren ondoan bide egiteko zoria zuen. Gure ondoan bide egiten duten anai-arrebak dira gure zorte on, eta horiek argi dezakete gure bidea ontasun eta trebetasunez, beraiekin komunikazioan jartzen bagara.

Otoitza

Gauzaren bat egin ahal ba dut, gaur,
zerbitzuren bat egin ahal badut,
zerbait ondo esana mintzo badezaket,
esan, Jauna, niri nola egin.

Zoritarrekoren bati laguntza eman ahal badiot,
haren zama arindu badezaket,
alaitasun gehiago barreia badezaket,
esan, Jauna, niri nola egin.

Giza hutsegiteren bat konpon badezaket,
hurkoari indarra eman ahal badiot,
hura kantuz alai badezaket,
esan, Jauna, niri nola egin.

Grenville Kleiser

Gutuneko azken hitzak

“Zenbaitetan bizitza bizitzeko indarra lagun batek bakarrik eskaini diezazuke.”

2014ko otsaileko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen daukate otsaileko erreferentzia guztiak:

1 Mc 4, 35-41	7 Mc 6, 14-29	13 Mc 7, 24-30	18 Mc 8, 14-21	24 Mc 9, 14-29
2 Lc 2,22-40	8 Mc 6, 30-34	14 Lc 10, 1-9	19 Mc 8, 22-26	25 Mc 9, 30-37
3.Mc 5, 1-20	9 Mt 5, 13-16	15 Mc 8,1-10	20 Mc 8,27-33	26 Mc 9, 38-40
4 Mc 5, 21-43	10 Mc 6, 53-56	16 Mt 5, 20-22a.27-28.33-34a.37	21 Mc 8, 34-9,1	27 Mc 9, 41-50
5 Mc 6, 1-6	11 Mc 7, 1-13	17 Mc 8, 11-13	22 Mt 22, 13-19	28 Mc 10,1-12
6 Mc 6, 7-13	12 Mc 7, 14-23		23 Mt 5, 38-48	

Otsailean elkarrekin ospatuko dugun otoitza 27an izando da 19:30tan

Geure web gunea bisitatu



www.asissarea.org

Asis Sarea

646 21 48 96